

ALKATE DEKRETUA

Kontuan izanik, Eusebio Uberetagoena Arratibelek (15913855V NAN zk.), Hauspibarra Kultur Elkartearen izenean (G20808341 IFK zk.), 2025eko otsailaren 3an, "Hauspoa kultur elkarteak 2025 urtean garatuko duen programazioa" proiektua gauzatzeko dirulaguntza eskaera aurkeztu zuela (605 sarrera zk.).

Kontuan izanik, 2025eko martxoaren 13an 2025WDI10005 espedientea ireki dela.

Kontuan izanik, 2025eko martxoaren 14an Kultura eta Gazteria teknikariak egindako 2025-KG-TXOS023 txostena.

Kontuan izanik, 2025eko martxoaren 28an Udal Idazkariak egindako txostena.

Kontuan izanik, 2025eko maiatzaren 5ean Udal Kontu-Hartzaileak egindako txostena.

Alkaordetza honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 23.3 artikuluan arautzen denarekin bat, 2568/1986 Errege Dekretuaren 43.3 artikulua araberara eta 153/2025 Alkate Dekretuetan esleitzen zaizkidan ahalmenak erabiliz, honakoa,

EBAZTEN DU

LEHENA.- Ibarra Kultur Hauspibarra Kultur Elkarteari (G20808341 IFZ zk.) 2025 urtean zehar gauzatuko duen "Hauspibarra kultur elkarteak 2025 urtean garatuko duen programazioa" izendun proiektuari zuzeneko dirulaguntza izenduna ematea honako arrazoiengatik:

1. Herrian dagoen euskal kultura zaintzea eta zabaltzea helburu duen elkarte bakarra da.
2. Euskal kultura-ondare inmateriala diren ohitura ezberdinak bultzatzen dituelako, herritarren artean zabaltzen dituelako eta haien transmisio eta babeserako lan egiten duelako.
3. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko parekidetasuna bultzatzen duelako.
4. Ibarrari izen ona eta ospea ematen dielako.
5. Herriko eragile aktiboa delako, euskal kultura herritarren artean zabalduz eta bertan parte hartzera gonbidatuz.
6. Ibarra herritarrei oro har, herrian bertan euskal kulturaren murgiltzeko eta jarduteko aukera ematen dielako.

BIGARRENA.- Honako jarduerak jartzea diruz lagungarri gisa:

- "Gandeia" dantza emanaldia urtarilaren 1ean.
- San Blas erroskilen sukaldaritza tailerra urtarilaren 30ean.
- Santa Ageda bezpera otsailaren 4an.
- "Ztandup" antzerki emanaldia martxoaren 7an.

- Emakumeen afaria martxoaren 7an.
- "Hirut" dantza emanaldia martxoaren 28an.
- Sanjoan bezpera ekainaren 23an.
- Babarrunaren eguna azaroa/abenduan (data zehazteke)
- Olentzeroren jaitsiera abenduaren 24an.
- Urtean zehar herriko elkarte eta eragile ezberdinekin elkarlanean sortu daitezkeenak.

HIRUGARRENA.- Ematea 13.000,00 euroko dirulaguntza zuzena Hauspibarra Kultur Elkarteari, bi zatitan ordainduta:

- Lehenengo ordainketa (hitzarmenaren sinadura burutu ondorengo 30 eguneko epean): 11.050,00 € (dirulaguntzaren % 85).
- Bigarrenengo ordainketa: 1.950,00 € (dirulaguntzaren % 15) egindako gastua justifikatzen duen kontua alkate dekretu bidez onartzerakoan.

LAUGARRENA.- Itzultzeko geratu ziren Hauspibarra Kultur Elkartek 2024an jasotako dirulaguntzaren aurrerapenari dagozkion gehiegizko 10.182,68 euroak, 2025eko dirulaguntzaren lehenengo ordainketatik (11.050,00 €) deskontatzea, eta horrela, 2025eko aurrekontutik 867,32 € ordaintzea.

BOSGARRENA.- Egoztea aipatu diru kopurua 2025eko 1.09.334.00.481.01 2025 (242) Dirulaguntza zuzena Hauspibarra kontu-sailari.

SEIGARRENA.- Ibarra 2025ean "Hauspibarra kultur elkarteak 2025 urtean garatuko duen programazioa" proiektua gauzatzeko eta diruz laguntzeko, Hauspibarra Kultur Elkarteari lankidetzat hitzarmena sinatzea.

ZAZPIGARRENA.- Dirulaguntza hau Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.

ZORTZIGARRENA.- Aipatu akordio hau interesdunari jakinaraziko zaio.

BEDERATZIGARRENA.- Dekretu honen berri ematea Kontu-Hartzaitetzari.

HAMARGARRENA.- Dekretu honen berri ematea Udalbatzak egiten duen hurrengo ohiko bilkuran.

Ibarra, sinadura digitalaren datan
ZINEGOTZI AHALORDEDUNA

Nekane Lazkano Prieto



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025WDI10005-Dekretua_OR/Decreto_GE (HAUSPIBARRA KULTUR ELKARTEA)